

TEKNOLOGIA ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Adur Lagunas Tabar	Maila	DBH2	Ikasturtea	2020-2021
-----------	--------------------	-------	------	------------	-----------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

Teknologia ikasgaia lehenengo mailaren jarraipena izanda oinarrizko edukiak burutzen dira. Ikasleek proiektuen bitartez, talde lana bultzatuz lantzen da ikasgaia. Astean bi orduko ikasgaia da. Teknologiaren sarrera osatzen dute. Ikastetxeak **Skola**erekin duen konpromisoari jarraituz, arloak baterako hezkuntza landuko du.

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	
3) Gaitasun digitala.			3		5		7		9	
4) Ikasten ikastea.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.			3		5			8	9	
6) Ekimena eta ekintzailtza.			3		5			8	9	
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.										

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

EDUKIAK

[TEKNOLOGIA II CURRICULUMA](#)

- 1.-Problema teknologikoak ebazteko prozesua.
- 2.-Adierazpen eta komunikazio teknikak.
- 3.-Erabilera teknikoko materialak.
- 4.-Mekanismoak.
- 5.-Elektrizitatea.
- 6.-Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak:
 - Hardwarea eta sistema eragileak.
 - Kalkulu orriak.
 - Programazio informatikoak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[TEKNOLOGIA II CURRICULUMA](#)

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
2	Aurkezpena. Erremintak. Google Aplikazioak	4	3. Mekanismoak proiektua	8	6. Kalkulu orriak
8	1. Objektuen bistak eta akotazioa	8	4. Elektrizitatea	14	7. Scratch
8	2. Mekanismoak	8	5. Elektrizitate proiektua		
4	3. Mekanismoak proiektua				

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Metodologia

Unitate bakoitzaren hasieran aurkezpen bat egiten da ikasleen aurre ideiak sortzeko. Fitxak banatzen dira koadernoan osatuz edo eta google tresnen bitartez materiala eskuragai dago. Ondoren idatzizko edo eta online ariketak, tailerreko praktikak edo bestelako jardueren bidez gaiak landuko dira. Proiektuak egingo dira eta hauekin batera txostenak ere garatuko dira. Ikasleak taldean lan egiten ikasiko du.

Baliabideak

Fitxak eta koadernoak. Marrazketarako tresnak (erregela graduatua, eskuaira, kartaboia, konpasa). Tailerreko materialak eta tresnak. Etxetik ikasleek ekarritako zenbait material. Ordenagailuak. Arloa garatzeko irakasleak emandako apunteak erabiliko dira, bestetik arloaren garapena laguntzeko Google aplikazioak erabiliko dira. Horiez gain teknologia tailerreko baliabideak erabiliko dira.

Ikasleek ikasgelako ikasgelaren bidez irakaslearekin hartu emanak izanen dituzte.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA ETA TRESNAK

Ebaluatzeko orduan tresna hauek erabiliko dira eta kalifikatzeko portzentajeak ondorengoak izanen dira:

- **Kontrolak, lanak eta lan praktikoak** baloratuko dira unitate didaktikoaren arabera. Honek **notaren %70** suposatuko duela notetan. Proiektuak egiten diren unitateetan eguneroko lana kontutan izango da proiektuaren nota orokorra kalkulatzeko orduan. Ebaluaketak gainditzeko ezinbestekoa izango da **unitate bakoitzean 7** puntuetatik 2 gutxienez lortzea.

- **Jarrerak notaren %30** suposatuko du. Jarrera baloratzeko kontutan hartuko diren irizpideak: elkar errespetua, ez oztopatzea, materiala ekartzea, etxeko lanak egitea, lanak garaiz aurkeztea, ikasgaiaren interesa izatea, euskararen erabilera, denbora aprobetxatzea eta baliabideak zaintzea.

Jarrera desagokiak kentzen dute:

Euskaraz ez hitz egitea	-0,2	Klasean pertsonak bezala ez egotea (tokiz aldatu, hankak mahai gainean,...)	-0,2
Klasera orduan ez etortzea	-0,2	Klasean lanean ez aritzea, beste zereginetan aritzea, ez kooperatzea...	-0,2
Beharrezko materiala ez ekartzea	-0,2	Lanak epean ez aurkeztea (egun bakoitzeko)	-0,5
Gela eta tailerreko materialak eta tresnak ez zaintzea	-0,2	Ikaskide eta irakaslearekiko errespetua ez izatea	-0,5
Tailerreko arauak ez errespetatzea	-0,2	Mugikorra klasean erabiltzea	-0,5
Etxeko lanak ez egitea	-0,2	Tailerrean zein klasean eraso fisiko bat gertatzen bada	suspe ntsoa

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Zuzenketa irizpideak.

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5 - 5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

Azken nota TEKNOLOGIA II ikasgaia gainditzeko, hiru ebaluazioetako noten batezbestekoan 5 edo handiagoa den kalifikazioa lortu beharko da.

Teknologia II ikasgaiaren ez da ematen nota hobetzeko aukerarik.

Saioen %20 edo gehiago huts egiten bada, ebaluazio jarraia eskubidea galduko da.

Gutxieneoak:

- Klasera etortzea.
- Beharrezko materiala ekartzea.
- Lanak entregatzea.
- Denbora aprobetxatzea, klasean lanean aritzea.
- Pertsonetikiko begirune edo errespetua adieraztea.
- Gauza, material edo erremintekin begirunez edo errespetuz jokatzeko.
- Proiektuen metodoaren urratsak ongi betetzea proiektuak egitean.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Ebaluazio batean suspentsoa bada, suspenditutako unitateak berreskuratu behar dira, hurrengo ebaluazioaren lehenengo egunetan, data adostuta. Behin berreskuratuta, nota beheko taulan agertzen den moduan finkatuko da.

Ohiko deialdian, ikasleren batek hiru ebaluaketen batez bestekoan ez badu 5 edo gehiago lortzen, suspendituriko ebaluaketak berreskuratu beharko ditu ohiko deialdian.

Berreskurapena suspentsoaren arabera izanen da, pertsonalizatua. Unitate batean minimora ez iristeagatik, lanak ez entregatzeagatik edo gaizki egiteagatik bada, hauek berreskuratu behar dira. Hori bada, 7 puntutik baloratuko da eta gainontzeko 3 puntuak, ebaluazio horretako jarreraren izandakoak aterako dira. Behin berreskuratuta, beheko taulan agertzen den moduan, lortutako nota berri honekin (hauekin) hiru ebaluazioen noten batz bestekoa eginez, kalkulatu da azken nota.

Ez Ohiko deialdian, ikasleren batek hiru ebaluazioen batezbestekoan ez badu 5 edo gehiago lortzen, suspendituriko ebaluazioak berreskuratu beharko ditu. Berreskurapena suspentsoaren araberakoa izanen da, pertsonalizatua. Behin berreskuratuta, beheko taulan agertzen den moduan, lortutako nota berri honekin (hauekin) hiru ebaluazioen noten batezbestekoa eginez, kalkulatu da azken nota.

Berreskurapenaren emaitza	Azken emaitza
8.5 - 10	7
7 - 8.5	6
5 - 7	5
0 - 5	Berreskurapenaren emaitza borobildua (4 eta 5 artean, 4)

KANPOKO EBALUAZIOA

TEKNOLOGIA II ikasgaiaren ez da kanpoko ebaluaziorik egiten.

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.

Iruñea, 2020ko iraila.